EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Dirección de Innovación Educativa

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZAREN ZIRKULARRA,
**IRALE PROGRAMAREN** BERRI EMANEZ
ETA JARDUNBIDE-EPEAK JAKINARAZIZ.
**2020-2021 ikasturteko irakastorduz kanpoko ikastaroak (A eta E)**

Zuzendari jauna/andrea:

2020-2021 ikasturterako, **Irale programaren** barruan irakastorduz kanpoko euskalduntze **ikastaroetan (A eta E)** parte hartzeko deialdia zabalduko du Hezkuntza Sailak.

Deialdi hau ikastaro horiek egin nahi dituzten unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuetako langileei bideratuta dago, oraindik euskaldundu gabe dauden langileak euskalduntzeko.

Izena emateko **epea irailaren 1etik 10era bitartean egondo da zabalik**, bi egunak barne.

Honekin batera, 2020-2021 ikasturteko irakastorduz kanpoko ikastaroen (A eta E) araudia ere bidaltzen dizugu. Arretaz irakurtzeko eskatzen dizugu, bertan aurkituko baitituzu ikastaro horietan parte hartzeko xehetasun guztiak.

Informazio guztia Hezkuntza Saileko Iraleren web orrian izango duzu eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-euskara/

Besterik gabe, har ezazu nire agurrik zintzoena.

Gasteizen, 2020ko abuztuaren 31n.

**Lucia Torreladay Berrueco**
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 41 –E-mail: huiseusk@euskadi.eus